

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

«Mansplaining»

Orain dela aste batzuk sorginaren irudien inguruko hitzaldi bat eman nuen, emakume idealaren eredutik aldentzeagatik jazarritako zigor eta marjinazioari buruz hitz egin nuen. Hitzaldi amaieran lehenengo ilaran eserita zegoen gizon batek hartu zuen hitza. Nire esperientzian oinarrituta, ia beti horrela izaten da, nahiz eta gizonetako publikoan gutxiengoa izan, gehiengoetan hitza hartzen duen lehenengoa gizona da. Eroso sentitzen dira, eremu publikoa gizonena den seinale. Emakumeren batek hitza hartzen duenean berriz, ia beti «esan behar dudana agian tontakeria bat da» edo «ez nago oso ziur baina» batekin hasten da. Irentsitako segurtasun faltaren isla, ia hitz egiteko eskubiderik ez bagenu bezala eta, eremu pribatuan edo zaintzan ez bezala, ez dagokigun eremua okupatzeagatik barkamena eskatu beharko bagenu bezala.

Gizon honek berriz hitz egiterakoan ez zuen segurtasun faltarik transmititzen, are gutxiago, lasai asko eta oso doinu jator batekin, niretzat nahiko paternalista egia esateko, azaldu zidan oso oker nengoela. Berak behin Nafarroako Artxibo Orokorrean bere herriko sorgin baten kontrako auzi bat irakurri zuelako eta nik esaten nuena ez zelako %100ean betetzen. *Mansplaining* bat markatu zen momentu horretan. Ingelesetik hartutako neologismo bat da: *man* (gizona) eta *explain* (azaldu). Honela definitu daiteke: «zerbait norbaiti azaldu, normalean gizonak emakumeari, besteak ezer ez baleki bezala edota azalpena entzuten duenak azalpena ematen duenak baino gehiago dakiela kontuan hartu gabe».

Egoera hau behin baino gehiagotan bizi izan dudanez, arnasa hartu nuen eta batu ahal izan nuen lasaitasun guztiarekin saiatu nintzaion azaltzen kasu ba-

kar batek ezin duela orokortasuna azaldu eta fenomeno bat ulertzeko, kasu honetan sorginkeriararen ehiza Historian, auzi guztiak aztertu behar ditugula eta orduan ondorioztatu. Hau da, historialari batek egiten duen lana. Hau da, ni Historian doktorea eta gaian aditua naizen aldetik, auzi bakar batek ematen dizun jakintzatik «zertxobait» haratago nagoen ikertzailea izanik, banuela gai honetan berak ematen zidan autoritatea baino gehiago.

Baina azkenekoa ez nion esan, txikitari esan zidatelako besteak baino gehiago nekiela agerian uztea gaizki zegoela, ez nuela mutil-lagunik aurkituko «mari-jakintsu» bat izanda. Eta kontua da berriz ere nire burua gainesfortzu bat egiten aurkitu nuela. Adin erdiko gizona banintz ziur nago horrelako azalpenak ez nituela eman beharko, nire hitzek legitimitatea izanen luketelako.

Ba hauxe bera sentitzen dut hauteskunde kanpaina honetan hautagaiek, gizonetako ia %100ean, berdintasunari buruz hitz egiten dutenean. Egia esateko ez dut hau askotan sentitzen, horrek esan nahiko lukeelako berdintasunaren gaiak kanpainen protagonismoa duela. Minutu bat eta berrogeita hamar segundo zuzen ere telebistak emandako Espainiako lau alderdi nagusien eztabaidan, besterik gabe. Minutu bat eta berrogeita hamar segundo doinu serio –niretzat berriz ere doinu paternalista orde– batekin azaltzeko emakumeen kontrako indarkeria gizarte osoaren gaitz jasanezina dela. Ezta segundo bat ere gure gizartean bizi dugun gizonen eta emakumeen arteko desorekak gainditzeko proposatzen dituzten (proposatzen dituztenean) neurriak buruz hitz egiteko. Abantaila bakar bat ikusten diot honi, behintzat gai honetan *mansplaining* gutxi jasan behar ditugula. •

«Mansplaining» ingelesetik hartutako neologismo bat da: «man» (gizona) eta «explain» (azaldu). Honakoa: «zerbait norbaiti azaldu, normalean gizonak emakumeari, besteak ezer ez baleki bezala edota azalpena entzuten duenak azalpena ematen duenak baino gehiago dakiela kontuan hartu gabe»